

MARRAZKI MARATOIA

Hendaiak 50 marrazkilari inguru bilduko ditu 62. SketchCrawl deialdian

Lehen deialdia Kaliforniatik egin zuen Enrico Casarosak 2006. urtean. «Hiriaren inguruko marrazki bizkorren eguna» bezala deskribatu zuen. Finean, «nire arkatx eta akuarelekin nire inguruan ikusten dudana gelditu eta koaderno batean jasotzeko ahalegina». Bakarrik hasi zen, baina azkar konturatu zen taldean interesgarriagoa izango litzatekeela esperimientua eta zabaltu egin zuen deialdia.

Toki bakarrean hasitakoa laster bihurtu zen toki askotakoa eta jende askorena, sareak eskaintzen dituen aukerei esker. Gaur, urtarilaren 26a, SketchCrawl ekimenak bere 62. topaketa antolatu du munduko txoko ugarian; tartean, Hendaiako, Euskalherria's SketchCrawl taldeak deituta. 50 marrazkilari inguruk parte hartzea espero da.

 **JENDARTEA** / Amagoia Mujika Telleria

Koadernoan aldean hartu eta inguruko paisaia, pertsona, arkitektura... marrazkietan harrapatzea. Horixe da, gutxi gorabehera, SketchCrawl ekimenaren abiapuntua. Topaketak, marrazki maratoiak, bere 62. aldia izango du asteburuan munduko hamaika txokotan. Tartean, Hendaiako, Euskalherria's SketchCrawl taldeak deituta.

Hendaiako deialdia Artzenalesko (Enkarterri) Gorka Belasko marrazkilariak antolatu du. «Munduan zehar deialdi horretara lotzen diren talde desberdinak daude. Horietako bat da Euskalherria's SketchCrawl. Deialdi horiek markatzen digute erritmoa urtean zehar. Lau deialdi izaten dira, urtaro bakoitzean bat gutxi gorabehera», agertu du. Marrazketa topaketa horiek


Behoko irudietan, ezker-eskuin, aurretik Balmasedan eta Donibane Garazin izandako hitzorduetan jasotako uneak.
Gorka BELASKO

ezaugarri jakinak izaten dituzte: irekiak, parte-hartzaileak, horizontalak, lehiarik gabekoak eta musu truk egiten direnak. Hortik aurrera, marrazkilariak egunean zehar beren koadernoan metatzen duten ekoizpen grafikoa sare sozialen bitartez zabaltzen da ondoren, «hartu gaituen herriaren izena eta izana lau haitzara zabaltuz», nabarmendu du Belaskok.

SketchCrawl eta Urban Sketchers ekimenak ez dira gauza bera, badituzte tasun propioak. Baina Belaskoren ustez, baten dekalogoak balio du bestearentzat. «Tokian marrazten dugu, barnean ala kanpoan, ikusten duguna zuzenean islatuz. Gure marrazkiek gure inguruko istorioak kontatzen dituzte, bizi garen eta bidaiatzen dugun tokietakoak. Marrazterakoan, toki eta une jakin bat islatzen dugu. Ikusten ditugun eszenekin leialak gara. Estilo ezberdintasuna ospatzen dugu eta edozein tresna eta euskarri erabiltzen dugu. Elkarri laguntzen diogu eta taldean marrazten dugu. Gure marrazkiak sarean elkarbanatzen ditugu. Mundua marrazkiz marrazki erakusten dugu».

SketchCrawl topaketetan leku bakoitzaren ezaugarriak egokitutako ibilbide bat proposatzen da. Hortik aurrera, bakoitzak erabakitzen du begi-





Goian, ezker aldean,
Gorka Belasko
Karrantzako Sketch
Crawlen lan betean.
Alboan, Balmasedan
hartutako argazkia.
Ramon LEJARDI- Gorka
BELASKO

rada zertan finkatu. Hendaia-
rako gaur prestatu duten egi-
taraua hondartzan hasiko da
goizeko hamarretan, Kasinoa-
ren aurrean. Hasierako agurra-
ren eta taldeko argazkiaren
ondoren, marrazkilari bakoit-
zak aukeratuko du bere bidea
eta erabakiko du bere lana no-
ra bideratu; paisaiak, pertso-
nak, arkitektura...

Ordu bata eta erdietan pilo-
talekuan daukate hitzordua ja-
rria bazkaltzeko. Bazkalostean
ere izango da zer gozatu.

SARE SOZIALEK INDARTUA

Koadernoak eta taldea, horiek
dira SketchCrawl topaketen
ezaugarri nagusietakoak. Be-
laskoren hitzetan, «koaderno-
aren gaineko lana klasiko bat
da, nolabait esatearren. Baina
sare sozialen bitartez indar be-
rri bat hartu du. Marrazteko
elkartzea eta denok batera ari-
tzea da ekimenaren muina.
Deialdiak askotan aitzakia
ederra izaten dira elkartu eta

batera marrazteko. Deialdiak
sarearen bitartez egiten dira,
lanak sarean partekatzen dira,
elkar ezagutzen dugu sareei
esker... egia da sare sozialek
parte handia izan dutela topa-
keta horietan. Jendea biltzea,
ikastaroak antolatzea, jardun-
aldiak, azokak koadernoaren
inguruan... sare sozialei esker
hori guztia errazagoa da»,
azaldu du Belaskok.

Gero eta jende gehiago ez
ezik, gero eta diru gehiago ere
mugitzen omen da marrazke-
ta maratoni horien inguruan.
«Gurean oraingoz ez, musu
truk izaten delako eta hori da,
hain justu, gurearen berezita-
sunezko bat. Baina beste toki
batzuetan diru asko mugitzen
da SketchCrawlen inguruan.
Topaketen inguruan jendea el-
kartzen da, egonaldiak egiten
dituzte herri edo hiri horietan,
jardunaldiak antolatzen dira,
ikastaroak, azokak... mundu
guztiko jendea batzen da ho-
rrelako topaketetara eta mugi-

mendu handia sortzen. Kata-
lunian, adibidez, indar handia
dauka. Jendea kalean marraz-
ten aritzen da eta hor ez da di-
rurik sortzen, baina bai horren
inguruan».

Topaketa horietan jakintza
handia partekatzen dela ere
nabarmentzen dute parte-har-
tzaileek. Izan ere, parte-har-
tzaileen aniztasuna ez da ba-
karrik geografikoa, marrazketaren adiera desber-
dinetatik datorren jendea ba-
tzen da eta baita maila oso
desberdinetan dagoena ere;

hasiberria eta ibilbide luzea
duena, biak elkarren ondoan
topatu daitezke kalean beren
koadernoetan marrazten. «Ka-
lean marrazten aritu zaitezke
puntako profesional batekin,
berdinetik berdinerara. Ez dago
lehiarik. Ez daukazu arazorik
dakizuna mahai gainean jar-
tzeko eta ez daukazu lotsarik
ez dakizuna agerian uzteko.
Ikasteko tresna aparta da;
erreferentziak, trikimailuak,
bibliografia...», iritzi dio Belas-
kok.

Marrazkilariaren lanak, be-
raz, ez du zertan bakartia izan,
nahiz eta normalean horrela
begitantzen den. «Lehen ba-
kartitzat genuen akaso; bakoit-
za bere etxean, bere koaderno-
arekin... orain elkartu egiten
gara eta zalantzak, hausnarke-
tak, lan egiteko moduak... par-
tekatzen ditugu. Garrantzitsua
izan da elkartzea. Eta egia da
hori sareek ahalbidetu digute-
la, gure lana bizitzeko beste
modu bat eman digute».

SketchCrawl topaketetan leku bakoitzaren ezaugarriak egokitutako ibilbide bat proposatzen da. Hortik aurrera, bakoitzak erabakitzen du begirada zertan finkatu

«Lehen marrazkilariaren lana bakartitzat genuen akaso; bakoitza berean lanean... orain elkartu eta zalantzak, hausnarketak, lan egiteko moduak... partekatzen ditugu»